

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
9 positibo berri	1.589 hildako EAEn	3 positibo berri	518 hildako
2.274 positibo guztira*	18 UCIn, EAEn	5.352 positibo guztira	6 UCIn
*Hernanin 63, Astigarragan 21		Sendatuak: EAE 17.575; Nafar. 8.029	

«Hitzak estali, eta protagonismoa eman diguzu; begiak itxita ere, gure ahotsak entzungo dituzu»

'Astigarraga eraso matxisten aurka' dioten seinaleetako batean pintada egin, eta hitzak estali dituzte azken egunetan. Hori gaitzesteko, agerraldia egin zuten ostiralean, eta adierazpena zabaldu dute Udalak eta Aztifemiak taldeak.

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Maiatza bukaeran jarri zituen Astigarragako Udalak, herriko sarreretan, more koloreko zenbait seinale: *Astigarraga eraso matxisten aurka* diote horiek. Hilabete baino gutxiago daramakite bertan, eta dagoeneko azaldu dira aurreneko pintadak, azken egunetan: seinaleetako bat beltzez pintatu, eta hitzak estali dizkiote; Oiartzundik etorrira herrira sartzean Errota ondoan dagoen seinaleari, hain justu. «Aurreko asteko ostegunean, seinalea margotu zuten, eta garbitu egin genuen; baina astelehenean berriro ere estali zuten mezua erabat», azaldu du Astigarragako Udalak.

Eraso horren aurka gogor egin dute, Udalak berak eta hainbat elkarte, talde eta eragilek, herritarrekin batera. Hasteke, Udaleko bozeramaileen batzordeak adierazpena onartu zuten ostegunean, aho batez. Eta adierazpen horrekin egin zuten bat Harituz elkarrekin, Aztifemiak taldeak, Gazte Asanbladak, Xaguxar aisialdi taldeak, AEK euskaltegiak, Zipotza elkarrekin, Honek GKEak, Goldea Herri Kirol Batzordeak, Astigarraga aldizkariak, eta Astigar Dantza Taldeak. Eta bertan egin zuten deialdia, baita ere, eraso salatzeko kalera ateratzeko.

Horrela, Joseba Barandiaran plazan elkartu ziren herritar asko, ostiral arratsaldean, pintadak salatzeko. Ekitaldia egin zuten plazan bertan, eta adierazpenak irakurri zituzten. Eta ondoren, elkarrekin joan ziren oinez, margotutako seinalera. Beltzez jantzita azaldu ziren

gehienak, protesta modura; eta aldarrikapen kartelak eskuan zituztela, indarkeria matxistaren kontrako mezuekin.

«Jendarte osoaren arazo, ardura eta lotsa da indarkeria matxista»

Horrelako ekintzak «erabat gaitzetsi», eta indarkeria matxistaren aurkako lanean «tinko» jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi izan du Udalak: «indarkeria matxista gertatzen da eredu soziokultural heteropatriarkalaren ondorioz, kontrola eta botere harremanak helburu dituen. Indarkeria matxistak, emakumeen aurkako indarkeria sexistaz gain, transfobia, lesbofobia eta homofobia ere hartzen ditu bere gain. Guk, ordea, Astiga-

«Indarkeria matxistak emakumeak kolpatzen ditu maila desproporzionatu batean. Ez da inola ere onargarria, eta are gutxiago, horren aldeko aldarri edo adierazpenik egitea»

rragako gehiengoak bezala, berdintasunean eta aske bizi diren herritarren herria nahi dugu; indarkeria matxistarik gabeko bizitza proiektu askeak gauzatzeko diren herria, alegia. Indarkeria matxistak emakumeak kolpatzen ditu maila desproporzionatu batean. 2019 urtean



Pintadak jaso zituen kartelera, elkarrekin egin zuten bidea oinez, herritar askok, aldarrikapen kartelak hartuta.

bakarrik, indarkeriaren biktima izan diren 4.419 emakumeren kasuak kontatu dira EAEn, eta urtez urte gora egiten du hildakoen kopuruak. Jendarte osoaren arazo, ardura eta lotsa da indarkeria matxista; beraz, ez da inola ere onargarria, eta are gutxiago, horren aldeko aldarri edo adierazpenik egitea.

Udalak gaineratu du, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka egiten den lana, jendarte osoarentzat dela onuragarria; «jendarte parekide batean denok aukera eta tratua izanda, eraikiko ditugulako bizitza merezi duten bizitza», adierazi du.

«Tinta beltzaren atzean ezkutatu hitz bakoitza ozen aldarrikatuko dugu»

Aztifemiak talde feministak ere zabaldu du bere adierazpena, pintada gaitzetsiz, hori egin duenari zuzenduta: «hitzak estali eta protagonismoa eman diguzu. Begiak itxita ere, gure ahotsak entzungo dituzu. Estalitako letra bakoitza ohol-

tza gainera igotzeko eskailera bihurtu duzu feminismoarentzat; estalitako hitz bakoitza lortu nahi duzunaren aurkako efektua izango baitu beti. Ezin gaitzestu estali, ezin gaitzestu bistatik kendu. Asko baikara, eta elkartuta egiten dugu lan. Eta herria dugu gurekin. Estalitako kartel bakoitza garbitu egingo baitugu, denon elkartasunarekin. Tinta beltzaren atzean ezkutatu hitz bakoitza ozen aldarrikatuko dugu gaur, bihar eta etzi. Esaten duguna bene-

tan sinesten dugunak garelako. Ez gara nekatzen, ez aspertzen; bizitza delako babestu, maitatu eta defendatzen duguna».

Horregatik, nabarmendu dute estalitako hitz horiek «inoiz baino sona gehiago» izango dutela orain herrian, «Astigarraga eraso matxisten aurka dagoelako! Herritarrok ez ditugu eraso matxistak onartuko. Herritarrok hitz estaliak lau haizetara zabaltzeko ardura hartuko dugu. Gure bizitza dagoelako joan», adierazi dute. **K**



Errota ondoko seinalea pintatu zuten, Oiartzundik etorrira dagoen sarrerakoa.

ME MARTUTENE Lanbide Eskola
Oinarrizko Lanbide Heziketa
ELEKTRIZITATEA
ELEKTRONIKA
INFORMATIKA
KOMUNIKAZIOAK
AURREMATRIKULA
2020.06.01 - 2020.06.19
943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org

Adarraga
HERNANI (Gipuzkoa)
ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia
Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

MENDIKUZE OKINDEGIA, S.L.
Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA
Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala
eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz
jasotzeko aukera duzu...
MAPFRE ASEGUURAK
Andre kalea 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@hatoraholkularitza.net

EGURALDIA
GAUR

Lainoak nagusituko dira berriro, ostarteen gainetik, baina euri gutxi egingo du. Zaparradaren bat bota dezake arratsaldean, baina gainekoan ateri eutsiko dio. Haizea iparraldetik sartuko da, eta indartu egingo da arratsaldean. **Min.13° / Max.21°**

BIHAR

Berdintsu jarraituko du bihar, eta zerua lainotuta egongo da. Egurditik aurrera, zaparrada batzuk botako ditu, baina txikiak. Iparraldeko haizea bizi ibiliko da arratsaldean, eta temperatura gradu pare bat jaitsi daiteke. **Min.12° / Max.20°**

ARGITARATZAILEA

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Ereñotzako Auzo Urtia

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gaez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

GOIZUETAKO UDALA

ELKARTEA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Hernaniko txistulariak, Fagollagatik oinez abiatu eta doinu alaiak zabaltzen, Ereñotzuko erdigunera bidean.

«Egoera da espeziala, hara ze erremedio! San Antonio raroa baina, halare San Antonio»

Festarik ez bada ere, San Antonio eguna girotu zuten txistulari eta bertsolariek atzo.

EREÑOTZU SAN ANTONIO EGUNA

Ohiko festarik ez zen izan atzo Ereñotzun, baina ospakizunari ez zioten hutsik egin nahi izan auzotarrek, San Antonio egunez. Eta polit-polit apainduta-ko balkoien deiar erantzunez, giro ederra zabaldu zuten auzoko txoko guztietara, Hernaniko txistulariek eta Asier Azpiroz eta Unai Agirre bertsolariek.

Ezin zuen bestela izan, eta San Antonio egun berezi bezain arraroari kantari aritu zitzaizkion bi bertsolariak, auzotarrak etxeetako atari eta balkoietan adi-adi zituztela. Hauxek, bota zituzten bertsoetako bi:



Asier Azpiroz eta Unai Agirre bertsolariak aritu ziren kantari, Ereñotzun barrena.

Egun haundia degu gaurkoa eta gu gatzoz propiyo etxeetako usainari re soinu goxua dariyo egoera da espeziala hara ze erremedio! San Antoniyo raroa baina halare San Antoniyo.

Esan ziguten ta bildu gera hemen ahal gendun koadrila batzuentzako gutxitxo gera ta besteen ustez pila etxerik etxe muiitu nahi degu zuen umorean bila auzoan festak dituzue ta pixka bat nota dadila. K

Iazko martxoan hil zirenen omenez, meza gaur San Joan Bataiatzailean

Eguerdiko 12:00etako elizkizunean izango dituzte gogoan, bere garaian urteurren meza ospatzerik izan ez zelako, alarma egoeragatik.

HERNANI ELIZA

Elizak berriro zabaltzeko baimena eman zenetik, bere elizkizunak egokitu eta antolatatu ditu Urumea Harana Pastoral Barrutiak. Horrela, batetik, as-teburuetara mugatu ditu ohiko elizkizunak; eta asteazken zehar, hileta mezak bakarrik ari dira ospatzen, Hernaniko San Joan

Bataiatzailean. Eta egutegia antolatu du, baita ere, azken agurraren emateko konfinamendu garaian hil zirenen horiei. Datorren larunbatean segiko dute horietan, Antonio Sanchez Sanchiz eta Angel Garcia Loaren omeneko meza eskainiz.

Baina horiez gain, igandetan ere bada elizkizunik, Hernaniko elizetan: 09:00etan eta

12:00etan, San Joan Bataiatzailean parrokian; 10:00etan Ereñotzuko San Antonio elizan; eta 11:00etan Floridako San Jose Langilea elizan.

Eta gaurkoan, berezia izango da eguerdian San Joan Bataiatzailean eskainiko dutena. Izan ere, gogoan izango dituzte bertan, 2019ko martxoan hil zirenak. Haien omenezko elizkizuna egingo dute, bere garaian ez zutelako urteurren meza ospatzerik izan, COVID-19aren ondorioz osasun alarma egoera ezarri zela eta. K



Datorren larunbatean egingo da berriro zabalik, Chillida Leku museoa.

Sarrerak prezio berezian bihartik, Chillida Leku berriro zabaltzeko

Ekainaren 20an irekiko dute berriro, emanaldi berezi batekin, eta Biterin eskuratu daitezke sarrerak.

HERNANI CHILLIDA LEKU

Datorren larunbatean, ekainaren 20an, zabalduko ditu ateak berriro Chillida Lekuk, alarma egoeraren eraginez itxita egon ondoren. Eta modu berezian irekiko dute, gainera. Batetik, Iceberg emanaldia eskainiko dutelako Myriam Perez Cazabon dantzariak eta Nagore Legarreta argazkilarik hernaniarrak. Eta bestetik, prezio berezian eskuratu ahal izango direlako sarrerak, bihartik.

Horretan, gainera, lehentasuna izango dute hernaniarrek: larunbaterako salduko diren

400 sarreretatik, 300 erreserbatu dituzte hernaniarrentzat, eta bihartik egongo dira eskuragarri, Biteri kultur etxean.

Iceberg ikuskizunaren bi emanaldi izango dira larunbatean, 12:00etan eta 20:00etan; eta bakoitzerako, 200 sarrerara mugatu dute aforoa. Horietatik, 150 izango dira hernaniarrentzat. Helduen sarrerak 8 euro izango dira, eta ikasle, langabetu eta jubilatuenak 5 euro; 12 urtetik beherako haurrak doan sartuko dira. Biterin egongo dira salgai, bihartik ostiralera, goizeko 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldeko 16:00etan hasi eta 19:00ak arte. Txartelarekin bakarrik ordaindu ahal izango da.

Goizeko txandarako sarrera erosten dutenek, museoa bisitatu ahal izango dute 10:00etatik 14:00etara; eta arratsaldeko dutenek, 18:00etatik 22:00etara. K

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† RITA URRUZOLA LIZARRIBAR

'Amparo'
(Jose Zubiriren alarguna)
Atzo hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Maria Jose eta Jose Ramon Aguirrezabala, Mikel (†), Milagros eta Jose Luis Iturrutxa; bilobak: Maider eta Jose, Pepelu, Ibai eta Pili, Egoitz eta Miren; birlobak: Izel eta Helene; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko ekainaren 14an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egingo da gaur arratsaldeko 20:00ak arte.



IRAGARKI MERKEAK

Magisteritza ikasten duen 20 urteko neska euskalduna udaran haurrak zaintzeko prest.

Deitu: 689 470 760

Neska prest udaran klase partikularrik eman eta umeak zaintzeko. Deitu: 678 22 57 05 Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**